

# FUNTSEZKO ALIANTZAK

Produktu fisikoak saltzen ez dugun enpresa izan arren, gure enpresa bazkide batzuekin kontaktzen du, enpresa sustatzen, baliabideak jasotzeko eta lan egoera hobetzen laguntzen dutenak.



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

Hasteko, **Euskal Herriko Unibertsitatearen** laguntza edukiko dugu. Horrek ahalbidetuko gaitu **urteroko hitzaldietara, beketara...** modu honetan gure **bezero kantitateak areagotzen**, haien **prestigioa eta laguntasuna** bermatzen; hortaz, guztiok irabazten dugu; **gure negozioa sustako** baitute eta doako hitzaldiak jasoko dituzte.

Hitzaldiak informazioa bermatzeko egingo dira, modu honetan bezero kantitate gehiago edukitzeko aukera ematen. Bestalde, beka emango diete gure ikasleek unibertsitatera joateko aukera izan dezaten.

Beste unibertsitatearen laguntza edukiko dugu: **Mondragon Unibertsitatea**. Haien pertsona batzuk bidaliko dituzte gure enpresara **hitzaldiak eta ikastaroak** ematera, eta guk haien zerbitzuen publizitatea egingo dugu gure bezeroen artean. Horrela, **gure ikastaroen katalogoa doan zabaltzea** lortzen dugu, eduki kontrastatuekin eta lan-etorkizunari begira profesionalak diren edukiekin, eta haien publizitatea egiten dute eta bezeroen bat lor dezakete gure erabiltzaile gazteenen artean. Azken batean, bi aliantza horiek onura dakarkie elkarri.



Bestalde, **Lanbide**, Euskal Enplegu Zerbitzua, izango da gure beste bazkideetako bat. Lanbidek aukera ematen die erabiltzaileei prestakuntza-ikastaroak egiteko, bai berenak, bai zentro laguntzaileenak. Gu **zentro laguntzaile** horietako bat izango gara. Horrela, gure enpresak **langabezia dauden bezeroak lortuko** ditu, hau da, gure bezero potentzialetako bat, eta Lanbidek beste zentro laguntzaile bat izango du. Gainera, bezero batek ez daukagun ikastaro bat behar badu, gure enpresak Lanbideren zerbitzuak gomendatuko lizkioke. Halaber, beraien zerbitzuen publizitatea egingo genuke.



Lanbide

Euskal Enplegu Zerbitzua  
Servicio Vasco de Empleo